

IUNIBASQ-ren, EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN, TXOSTENA, EUNEIZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATE PRIBATU GISA EZAGUTZEKO LEGE PROIEKTUARI BURUZKOA.

I.- AURREKARIAK

I.- Hezkuntza Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren eskariz eta Unibasq-i, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari (hemendik aurrera Unibasq), ekainaren 28ko 13/2012 legeak 3. artikuluan ematen dion eskuduntzaz baliatuz ematen da txosten hau.

II.- 2019ko urtarrilaren 14an, EUNEIZ, teknologia berrien, kirolaren eta osasunaren unibertsitatea, unibertsitate pribatu gisa ezagutzeko EUSTEIZ 2018 S.A.-k aurkeztutako memoriari buruzko txosten bat egiteko eskaera egin zion Unibasq-ri Hezkuntza Sailak. 2019ko apirilaren 4an, Unibasq-ek kontrako txostena eman zuen.

III.- 2020ko irailaren 2an, EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa ezagutzeko lege-proiektuari buruzko txosten bat egiteko eskatu zion Unibasq-ri Hezkuntza Sailak.

Txostena egiten da, lege-proiektuan Agentziari zuzenean eta zeharka agintzen zaizkion funtzioei buruzko informazioa organo eskatzaileari emateko asmoz.

II.- TXOSTENA

I.- Txostena eskatzen den lege-proiektuak EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa ezagutzea du helburu.

II.- 4/2007 lege organikoak, Unibertsitateenak, eta otsailaren 25eko 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, xedatzen dutenez, ANECAk edo horretarako eskuduntzak dituen ebaluazio-agentzia autonomiko batek txosten bat eman behar du derrigorrean, ikasketa-planak egin eta onartzeko. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, otsailaren 25eko 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 48. artikuluan eta ekainaren 28ko 13/2012 legeak, Unibasq-renak, agentzia horri (Unibasq-ri) ematen diote egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateen titulazioak ebaluatzeko eskuduntza.

Bestalde, urriaren 29ko 1393/2007 errege dekretuak, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duenak, haren geroagoko aldaketek eta abenduaren 19ko 274/2017 dekretuak, gradu, master eta doktoretzaren tituluak lortzera bideratutako unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezarri eta kentzeari buruzkoak, ikasketa-planek, Unibertsitateen, Zentroen eta Tituluen Erregistroan sartu aurretik, gainditu beharko dituzten argibideak, baldintzak eta egiaztatzeko eta baimentzeko prozedura jasotzen dituzte. 1393/2007 errege dekretuak 24.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, ANECAk edo Autonomia Erkidegoen legeek zehazten dituzten ebaluazio-organismoak, betiere Kalitate Agentzien Erregistro Europarrean (European Quality Assurance Register, EQAR) izena eman badute, izango dute titulazio ofizialak egiaztatzeko eskuduntza, Goi Hezkuntzako Espazio Europarrean Kalitatea Bermatzeko Irizpide eta Argibideen (*European Standards and Guidelines for Quality Assurance of Higher Education*, ESG akronimoarekin ezagutuak) arabera kanpo ebaluazio bat gainditu ondoren. Unibasq-ek baldintza hori betetzen du, ENQARen kreditazioa 2014ko irailean lortu ondoren urte horretako azaroan EQARn izan baitzen erregistratuta. Beraz, ezagutza horrek ematen dio Agentziari Graduaren, Masterraren eta Doktoretzaren titulazio ofizialak egiaztatzeko gaitasun-agiria, Euskal Unibertsitate Sistemaren legean berean ezarritako terminoetan. Horiek horrela, egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateen titulazioak ebaluatzearen arloko eskuduntza guztiak bere gain hartuko ditu.

III.- Urriaren 29ko 1393/2007 errege dekretuak,- eta haren geroagoko aldaketek,- 27. bis artikuluan Unibertsitateen, Zentroen ta Tituluen Erregistroan (RUCT) inskribatuta dauden tituluen akreditazioa berritzeko prozesua erregulatzen du eta unibertsitateak akreditazioa berritzeko eskaera egingo duela xedatzen du, Autonomia Erkidegoek ezartzen dituzten prozeduraren eta epeen arabera. Horren arabera, Eusko Jaurlaritzak urriaren 16ko 205/2012 dekretua, Gradu, Master eta Doktoretzaren unibertsitate-tituluen akreditazioa berritzeko prozedura eta epeak ezartzen dituenak, onartu zuen.

Errege dekretuak berak 27. artikuluan xedatzen duenez, Unibertsitateen, Zentroen eta Tituluen Erregistroan (RUCT) inskribatuta dauden titulu ofizialeko irakaskuntza ezartzeko prozesua hasi ondoren, autonomia-erkidegoek zehazten dituzten ebaluazio-organismoak aurrera eramango dute Unibertsitate Kontseiluak egiaztatutako ikasketa-planetan dagoen proiektua betetzen den mailaren jarraipena.

IV.- Txostena eskatzen den lege-proiektuak, lehen aipatutako legeriak eta zerikusia duen beste batek xedatutakoaren arabera, funtzio orokor eta espezifiko batzuk ematen dizkio Unibasq-ri.

Funtzio orokorrari dagokionez, kalitatea bermatzeko eta ziurtatzeko Unibasq-ek euskal unibertsitate-ekosisteman betetzen duen rola, 2019-2022rako Euskal Unibertsitate Sistemaren Planak definitua, aipatu behar da. Agentziak betetzen du rol hori, otsailaren 25eko 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, ezartzen duen baldintza, besteak beste, babesteko; izan ere, euskal unibertsitate-sistema osoaren kalitatea hobetzea ekarriko duten eskubide eta exijentzia batzuk ezartzen ditu publiko ez diren unibertsitateentzat otsailaren 25eko 3/2004 lege horrek.

Unibasq-ri esleitzen zaizkion funtzio espezifikoei dagokienez, ondorengoak nabarmendu behar dira:

- Agentziako batzorde espezializatuak derrigorrezko ebaluazio-txostenak egitea, ikasketa-planak baimentzeko eta egiaztatzeko Agentziako Aholku Batzordean onartzen diren ebaluazio-irizpideen arabera, hori guztia 1393/2007 errege dekretuak, haren geroagoko aldaketek eta Eusko Jaurlaritzako 274/2017 dekretuak xedatutakoaren arabera.
- Egiaztatutako ikasketa-planean dagoen proiektuaren betetze-maila kontrolatzeko jarraipena egitea, 1393/2007 errege dekretuak, haren geroagoko aldaketek eta Eusko Jaurlaritzako 274/2017 dekretuak xedatutakoaren arabera.
- Gradu, Master eta Doktoretzako unibertsitate-irakaskuntza ofizialen akreditazioari eusteko ikasketa-planak ebaluatzea. Prozesu hau Agentziaren protokoloaren bidez erregulatuko da, 1393/2007 errege dekretuak, haren geroagoko aldaketek, 274/2017 eta Eusko Jaurlaritzako 205/2012 dekretuak xedatutakoaren arabera.
- Gradu, Master eta Doktoretzaren unibertsitate-titulu ofizialak lortzera bideratutako ikasketa-planak aldatu eta ezabatzeko prozesuak onartzea, 1393/2007 errege dekretuak, haren geroagoko aldaketek eta Eusko Jaurlaritzako 274/2017 dekretuak xedatutakoaren arabera.
- Euskadiko unibertsitate-irakaskuntza ofizialen eskaintzak kategorietan sailkatzeko prozesua ziurtatzea, bektore hauei (metodo eta metodologia berritzaileetan oinarritutako prestakuntza, nazioartekotzea, enpresa eta instituzioekiko lotura) kasu eaginez eta Eusko Jaurlaritzako 274/2017 dekretuak xedatutakoaren arabera.
- 13/2012 legean irakasleen ebaluazioaren eta akreditazio instituzionalaren arloetan ematen zaizkion funtzioak.

Aipatutako indarreko legeriaren eta, halaber, Goi Hezkuntzako Espazio Europarraren argibide eta estandar nagusien (aipatutako ESG esate baterako) arabera egiten ditu funtzio espezifiko horiek Agentziak.

Bada, aurreko puntuetan aipatutako legeriaren arabera, lege-proiektuak legez eta araudiaren arabera ematen zaizkion funtzioak, espresuki edo esan gabe, sartzen dituela uste du Unibasq-ek, jarduteko marko orokorrean eta erreferentziako nazioarteko argibide eta estandarrek-ESGek esate baterako- gidatuta. Halaber, funtzio horiek betetzeko baliabide materialak, giza baliabideak eta antolaketa-baliabideak dituela jakinarazten du.

Arestian adierazitako guztirengatik, EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa ezagutzeko lege-proiektuak, zuzenbidearen arabera eta kokatuta dagoen Goi Hezkuntzako Espazio Europarraren testuinguruan, Agentziaren jarduera-eremuko funtzio orokor eta espezifikak era egokian agertzen dituela uste du UNIBASQ-ek, eta EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa ezagutzeko lege-proiektuaren aldeko txostena ematen du.

Hau da informatu behar den guztia.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 15a

IÑAKI HERAS
SAIZARBITO
RIA -
34097761P

Firmado
digitalmente por

IÑAKI HERAS
SAIZARBITORIA -
34097761P

Fecha: 2020.09.09
13:44:35 +02'00'

Stua.: Iñaki Heras Saizarbitoria

Unibasq-eko Zuzendaria